



**LEZO ETA ERRENTERRIAREN ARTEKO HITZARMENA, ALKOLERAKO HONDAKINAK
BILTZEKO**

**LEZO ETA ERRENTERRIAKO UDALEN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA
HONDAKINEN EDUKIONTZI GUNE BAT PARTEKATZEARI BURUZKOA**

Errenterian, 2018ko maiatzaren 21ean

Elkartu dira

Alde batetik, Jesus Maria Martiarena Jaca, Lezoko Udaleko Alkate-Lehendakaria

Bestetik, Julen Mendoza Perez jauna, Errenteriako Udaleko Alkate-Lehendakaria.

Nire aurrean Xabier Loiola Aristi, Lezoko Idazkaria

Nire aurrean Nagore Sarasola Otermin, Errenteriako Idazkaria

Bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko legezko ahalmena onartzen diote elkarri ondorengo aurrekarietan oinarrituta.

Aurrekariak

Lezoko eta Errenteriako Udalen eskumen propio bat da Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, Euskadiko Toki Erakunde berrak 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, 17.17 artikuluan xedaturikoaren arabera. Baita Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, 25.2.b artikuluan arautzen duenez.

Lezoko Udalak Hondakin bilketa sistemaren aldaketa egin du 2017ko irailean, atez ateko sistema kenduz eta kaleko edukiontzi bilketa sistema ezarri. Aldaketa horren ondorioz,



Jaizkibel hiribidea 1 zenbakian (Alkoholerako eraikina) kokatuak dauden zenbait enpresek adierazi dute udalak jarritako edukiontzi gunea urrutiegi gelditzen zaiela haien hondakinak eramateko, eta tren geltokiaren ondoan Errenteriak jarritako edukiontzi gunea erabili ahal izateko eskaera egin dute.

Aipatu edukiontzi gune hori, tren geltokiaren ondoan dagoena, Lezoko udalerriko lurretan dago kokatua, naiz eta Errenteriako Udaleko edukiontziak izan.

Errenteriako Udala prest dago edukiontzi gune horren erabilera Lezoko Udalarekin konpartitzeko. Hau da: Jaizkibel Hiribidea 1 zenbakiko zenbait enpresek etxeetako hondakinak edo asimilagarriak diren hondakinak (uztailak 28ko Hondakin eta Lur Kutsatuen 22/2011 Legearen 3.b) artikuluan xedaturikoak) edukiontzi gune horretan uzteko. Lezoko Udalak borondate on hori eskertzen du.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, ahalbidetzen du administrazio publikoen arteko hitzarmenak sinatzea, xede honekin: "beste administrazio publiko baten (...) bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko" (47.2.a artikulua). Lege berdineko 48.3 artikulua dioenez, "Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu" ahal izateko. 7/1985 Legeak ere xedatzen du, 57.2 artikuluan, hitzarmenak sinatzean kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu behar dela. Ildo berean, 2/2016 Legeak honakoa dio: "Toki-erakundeek lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko" (100.1 art.) hitzarmen horien helburua izan daitekeelarik "lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea" (100.2 art.).

Hortaz, honakoa sinatzen dute:

Klausulak

LEHENA.- Errenteriako Udalak baimentzen du Lezoko Jaizkibel hiribidea 1 zenbakian dauden zazpi enpresek sortzen dituzten etxeetako hondakin asimilagarriak tren geltoki ondoan dagoen Errenteriako edukiontzi gunean uztea.



BIGARRENA.- Baimen honen barne daude Jaizkibel Hiribidea 1 zenbakian dagoen eraikinean kokatzen diren edo kokatu daitezkeen enpresak, besteak beste: Zaldiak jatetxea, Madison Salon de Billares, Ducabe Electricidad, Garaje Badiola, Droguería Tierno, Talleres Yutor eta Ferreteria Kaia.

HIRUGARRENA.- Enpresa horiek ezingo dituzte edukiontzietan utzi etxeetako hondakinak edo asimilagarriak ez diren beste edozein hondakin (uztailak 28ko Hondakin eta Lur Kutsatuen 22/2011 Legearen 3.b) artikuluan xedaturikoak). Edozein kasutan, Errenteriako hondakin ordenantza bete beharko dute.

LAUGARRENA.- Errenteriako Udalak ez dio ezer kobratuko Lezoko Udalari zerbitzu honen truke.

BOSGARREN.- Lezoko Udalak Errenteriako Udalari edukiontziak Lezoko udalerraren mugan kokatzea onartzen dio.

SEIGARRENA.- Errenteriako Udala arduratuko da edukiontziak irekitzeko behar diren giltzen banaketa eta ondorengo kudeaketaz.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen honen jarraipen, zaintza eta kontrolerako bitariko batzorde bat osatuko da. Osaketa mistoa izango da: zinegotziak eta teknikariak. Batzorde horrek ebatziko ditu planteak daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak. Urtean behin biiduko da, gutxienez, eta bi aldeetako batek deitzen duen orotan.

ZORTZIGARRENA.- Sinatzaileetako batek hitzarmena beteko ez balu, ez betetzea arina izatekotan beste aldeak ohartarazpen idatzi bat egingo lioke. Ez betetze larri baten aurrean, beste aldeak hitzarmena deuseztatu ahal izango du, batzorde parekidean beste irtenbiderik adostu ezean.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izango da. Alde bien adostasunez erabaki daiteke iraupena luzatzea, gehienez ere zortzi urtera arte. Ez da egongo isilbidezko luzapenik.

HAMARGARRENA.- Alde bien adostasuna beharko da, era berean, indarrean dagoen bitartean hitzarmenaren edukia aldatzeko: Udal bakoitzak akordioa hartu aurretik, batzorde parekidean jorratu beharko da gaia.



Eta adostasuna adierazteko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, ale bikoiztuan eta helburu bakar batekin, goiburuan adierazitako leku eta datan.

LEZOKO UDALA

Sin: Alkateak, Jesus Mari Martiarena Jaka

Lezoko Idazkariak

Sin: Xabier Loiola Aristi

ERRENERIAKO UDALA

Sin: Alkateak, Julen Mendioza Perez

Errenteriako Idazkariak

Sin: Nagore Sarasola Otermin